



BARREN  
TOKIKOM



# Historiaurrearen artisaua

Jose Julian Marquez

Ebreko hautsari alergia  
diotenezako egokila

Arropa garbigailuan  
garbitu daiteke,  
lehortu lehorgailuan.



**SUSTAPEN BEREZIA !**

**LAGUNAK**  
datorrosario textil bogor

%90ean antzaren lumatxekin betetako  
nordikoak **60€tik aurrera**

%90ean antzaren lumatxekin  
betetako burkoa **46€tik aurrera**

250g/m2

Zerbikaletara  
perfekzioara  
egokitzen da  
Belumena  
mantentzen du  
Erraz garbitzen da

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



1989  
2019  
**30 urte**  
Eskerrik asko!

**30 URTE** zuekin,  
mila esker guztioi hau posible egiteagatik.

Zure lagunak Garbiñe estetikara ekartzeak saria du!  
Etor zaitezte eta egingo duzuen tratamenduen  
**%10**eko deskontua lortuko duzue.

P.M. Urruzuno, 27 - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 743 132 - [garanzeta@gmail.com](mailto:garanzeta@gmail.com)

Gabonetarako  
opari bonoak eta  
opari kaxak ditugu,  
etorri eta zure neurrirako  
oparia prestatuko dugu!



## Elgoibarko Izarraren **TONBOLA**

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak  
bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera,  
Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan.  
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Liburuak



Lanpara



Estetika produktuak



"Landareak lantzen"  
agendak



Estutxeak eta  
polsak



Ardo kaxa

Elgoibarko Izarraren aldeko  
**TONBOLA**  
Abenduak 24,  
11:00etatik 14:00etara,  
Kalegoen plazan

1.000 erregalu  
baino gehiago...



Orraziak



Kafea



Pendrive-ak



Karterak



Giltzatak



Kolonia + panpina



Karaoke bozgorailua

... eta opari  
gehiago!



Harremanetarako: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 744 112

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ELIZAKO KANPAI ZARATIA

Antziña kanpaiak izaten ziran gure herrixetan informazua zabaltzeko baliabiderik ezagunena eta erabilliena (hillela-elizkizunetan, sutietan, jai haundixen hasieretan, iraulketa-kanpaiak...). Parrokiako kanpandorreko kanpaiak gizarate eta erlijio helburu modura balio izan dabe. Elizako erlojua ere erreferentia izan da herrixan. Gaur egun, ostera, etxe danetan erlojuz inguratuta gaude: sukaldian, egongelan, mesanotxian, eskuko telefonuetan eta abar. Horrez gain, eguneko 24 orduetan, ordu laudenero, entzun bihar dogu kanpaien zaratia!

Seguru nago Elgoibarren bizi gera-

non ehuneko laurogeita hamarra baino gehixago lotan edo lo egin nahixan egoten garala gabeko hamabixetatik seirak edo zazpirak arte. Neguan, sikiera, leihuak itxita, babestuago gaude, baiña udan, leihuak zabalik, zailla egitten jata lo hartzia kanpaien zaratiarekin. Aurreko udaberrixan *Patricia* seriearen grabaketan isillik egon ziran eta nik behintzat eskertu naban gabeko lasaittasuna.

Hori dana kontuan hartuta, proposamen bat egin nahi diot elizari: gabeko tarte horretan kanpai-hotsak isiltzia, inguruko herri batzuetan egin deben bezelaxe.

K.A.

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datoren eskutitzik argitaratuko.



## II. URTEURRENA

# Manolo Untzilla Ondarre

2017ko abenduaren 8an hil zen,  
93 urte zituela.

*Txinpartia euki dozu  
bizitza luzian,  
zenbat broma ta barre  
umore onian,  
pintzel fiña eskuan  
baita foballian,  
Manolo zu zaittugu  
gure bihotzian.*



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Sorluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



## Herriko komertzioetako erakusleihoak belztu dituzte denda txikiek bizi duten egoera larria azalertzeko



**B**lack Friday egunaren harira, herriko dendetako erakusleihoak belztu zituzten joan zen asteburuan. Txankakua merkatarri elkartearen kanpaina izan zen, eta elkarteko dendariez gain, herriko beste hainbat merkatarri ere bat egin zuten ekimenarekin. Guztira 98 dendetako erakusleihoak belztu zituzten. Helburua zen herritarrei erakustea zer gertatuko litzatekeen denda txikiak itxiko balira. “Denda txikiek argitasuna ematen diete kaleei, segurtasuna handitzen dute, eta itxiko balira kaleak ilun eta beltz geldituko lirateke”. Txankakuako arduradunek esan dutenez kanpainak eragina izan du herritarrengan, eta pozik agertu dira. Herritarren erosketak ohiturak aldatu eta kontzientzietan eragitea zen helburua, eta hein batean lortu dutela adierazi dute merkatarrien elkartetik.

## 1,33 milioi euro erabiliko ditu Udalak Arriaga industrialdea urbanizatzeko



Arriaga industrialdeko partzelen jabeek eta Elgoibarko Udalak 1,33 milioi euroko inbertsioa egitea adostu dute industrialdea berrurbanizatzeko. Bi fasetan egingo dituzte lanak: lehenengo fasean, 537.535 euro (BEZa barne) onartu dituzte lizitaziorako. Enpresek abenduaren 23ra arte aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, eta exekuzio epea sei hilabetekoa izango da. Bigarren faseko lanek zortzi hilabeteko iraupena izango dute, eta 794.260 euro (BEZa barne) inbertituko dituzte. Guztira 1,33 milioi eurokoa (BEZa barne) izango da urbanizaziorako inbertsioa. Udalak jakinarazi du 200.000 euroko diru-laguntza lortu duela obra hauetarako. Obra honek Arriaga industrialdeko arlo ezberdinetan izango du eragina: Urak banatzeko sare bat eraikiko dute, hondakin-urak ibaira beharrean araztegi bideratzeko. Espaloiak eta zoladurak hobetuko dituzte, argiteria publikoa jarriko dute, eta egungo industrialdearen azpitik igarotzen den Kortazar ubidearen egoera hobetuko dute. 1970ean eraiki zuten industrialdea eta ordutik ez da hobekuntza lanik egin.

## Bi sari eskuratu ditu Txillarrek San Andres azokan

Txillarre baserriko Argiñe Rubiok bi sari irabazi zituen joan den zapatuan Eibarko San Andres azokan. Guztira 70 postutik gora ipini zituzten azokan, eta onenak saritu zituen Eibarko Udalak. Elgoibarko Txillarre baserriak jarritako postuak bi sari jaso zituen: batetik, barazki posturik onenarena, eta bestetik, Aurkezpen Onenaren Saria.



Arg.: Eta kiito!

## Kontzezio Eguneko azoka egingo dute zapatuan Mendaron, eta egun osoko jai-egitaraua antolatu dute

**D**omekan da Kontzezio Eguna, baina zapatuan ospatuko dute Mendaron. Urtero bezala, baserriko sasoiko jenero onena dastatu eta erosteko aukera izango da frontoian, eta inguruko baserrietako ganaduak ere jaitziko dituzte kalera. 10:00etan zabalduko dute barazki eta ganadu azoka eta haren bueltan antolatu dituzte eguneko gainerako ekintzak. 11:00etarako dultzaineroen kalejira antolatu dute, bai eta sagardo lehiaketa ere, bederatzigarrenez. Eguerdian, dantzara irtengo dira herriko Euskal Dantzari Taldekoak plazara. Azpilgoetako Kultur Etxean irten eta kalejiran egingo dute plazara arteko bidea, eta han, dantza emanaldia emango dute haurrek eta helduek, taldeka banatuta.

Dantza saioa bukatu ostean, Izetako idiek gidatutako gurdian plazari itzulia egiteko aukera ere izango da, azken urteotako moduan. Goizeko jai-egitaraua Debako Rockalean taldeak itxiko du. Musika munduan denbora luzea dara-



maten bost musikaririk osatutako taldea da Rockalean: Javier Area eta Odei As-tibia, Jon Viejo, Mikel Sukunza eta LM Moreno *Piratak*, eta rock eta pop estiloko kantuak egiten dituzte, tartean hainbat talde ezagunen bertsioak ere jotzen dituzte.

### Herri-kirol jaialdia, arratsaldean

Arratsalderako herri-kirol jaialdia antolatu du Udalak. Eneko Otaño eta Julen

Alberdi *Txikia IV.a* ariko dira nor baino nor aizkoran, Imanol Albizu *Goikoetxe* eta Mikel Lopetegi Urra jardungo dira harri altxatzen, eta jungura lanetan jarriko dituzte Karmele Gisasola *Zelai III.a* eta Nerea Egurrola, elkarren kontra. Ondoren, txerri-errea dastatzeko aukera egongo da plazan, Mendaro Ikastolako Arno guraso elkarteko eskutik, eta iluntzea girotzeaz Rockalean taldekoak eta Pius eta Esther Djak arduratuko dira.

## Sebas Etxaniz aske laga dezatela eskatzeko giza katea egin dute Elgoibarren



Sebas Etxaniz preso elgoibartarra berehala aske lagatzeko, Kalegoen plazatik Maalara arte giza-katea eginez joan ziren Elgoibarko Sarek egindako deialdira batu ziren lagunak. Maalara iritsitakoan, talde argazkia atera zuten guztiek elkarrekin, *Adineko presoak*, *Sebas etxera* lelodun kartelarekin.

Arg.: Manu Sanchez

# Ongi-etorri nire museora

**Hezur Museoa zabalduko dute zapatuan, Artetxe kaleko 28. zenbakian. Museo bitxia da, berezia eta Euskal Herrian bakarra. Historiaurreko lan-tresnak eta beste hainbat pieza bildu ditu Jose Julian Marquezek museo honetan, denak berak eskuz egindakoak. Mundu osoko kobazulo eta mendi inguruetan aurkitu dituzten erreplikatzen dira guztiak, eta lehen begiratuan benetakoak dirudite. 700 bat pieza inguru sortu ditu azken hamar urteotan, eta orain, herritarrekin konpartitu nahi du bere bilduma. Bihar eta domekan zabalduko du museoa, eta bisita gidatuekin batera, historiaurreko gizakia nola bizi zen erakusteko tailerrak ere egingo dituztela aurreratu du.**

- AINHOA ANDONEGI -

Artetxe kaleko 28. zenbakian, Mufomi fosil eta mineral museoaren parean, aurkitu dugu Hezur Museoa jartzen duen atea. Ezkutuan dago lokala, kobazuloak egon ohi diren bezala. Jose Julian Marquezek berak zabaldu digu museo-orako atea, historiaurrera barneratu gaituena, eta bat-batean, kobazulo batean murgildu. Hormetan eta sabaian animalien irudiak ageri dira, okre koloreko tonu desberdinetan margotuta: oreinak, bisontek, ahuntzak, zaldiak. Historiaurreko gizakiak kobetan horrelako irudiak marrazteko ohitura zeukan, eta horixe bera irudikatu nahi izan du Marquezek marrazki hoiekin. Historiaurreko gizakiak marrazten zuten modu berean egin ditu marrazkiak, museoari kobazulo itxura emateko. Altamira, Ekain, Chauvet edo Lascaux bezalako kobetan aurkitutako margoen erreplikak dira.

Barrura sartu, eta horma-irudiekin batera, bitrina eta apaletan bildutako tresnak ikusten dira begiratu batean, zein baino zein dotoreagoak. Benetakoak dirudite, baina erreplikak dira. Interneten edo liburuetan aurkitzen ditu benetako piezak, eta haiei buruzko informazioa, eta originalen detaile guztiak zaintzen ditu kopiak egiterakoan: materiala, irudiak, tamaina... Ordu askotako lana dago tresna bakoitzaren atzean. 700 bat jarri ditu museoan, baina gehiago ditu gordeta. Azken hamar urteotan egin ditu Marquezek tresna gehienak, baina arkeologiarako duen zaletasun hau aspaldikoa da. Umea zela, 12 bat urte zituela, Elgoibarko Aizkora izenez ezagutzen den pieza aurkitu zuen Morterika inguruan amuarrainak arrantzatzen ari zela. Hasieran pentsatu zuen mineral bat zela. Berde kolorea dauka, eta malakita zela pentsatu zuen. Baina aintzinako tresnaren baten itxura ere hartu zion, eta hara non ikusi zuen anaiaren eskola liburu batean berak aurkitutako aizkora! Brontze aroko aizkora zen, Kristo aurreko 1.500



urte ingurukoa. Orduan konturatu zen haren balioaz, eta aurkikuntza garrantzitsua izan zen Elgoibarrerako. Gaur egun originala Euskal Herriko arkeologia gordailuan dago. Natura, mineralak, fosilak, arkeologia... dena gustatzen zaio Markezzi, eta agerikoa du bere jardunean. Pasioz hitz egiten du museoeko pieza bakoitzaren gainean, bere altxor txikiak dira, berak egin ditu eta denak maite ditu. Ezin du kuttunena edo gustukoena aukeratu, denak berdin maite dituelako. Denetariko piezak aurki ditzakegu museoan, Brontze Garaitik Paleolitiko garaira artekoak; gutxi gorabehera kristo aurreko 1000. urtetik 700.000 urterakoak. Mundu osoko tresnak ikus daitezke, hasieran ziren bezala. Aurkikuntzak egiten dituztenean ohikoena izaten da piezak puskatuta aurkitzea, baina Marquezek osorik egiten ditu, benetakoak nolakoak zen erakusteko. Museora etortzen denak mundu osoko historiaurreko tresnak aurkituko ditu, eta tresnekin batera, historiaurrera bidaia egingo du. Markezzen helburua da historiaurreko gizakiak nola bizi ziren erakustea, eta tresnen bidez, haien bizimoduko azalpen guztiak emango ditu bisita gidatuetan. Euskal Herrikoak, Europakoak, Afrikakoak eta Ameriketako tresnak ere kopiatu ditu. Karakateko Agarreburun, Santimamiñen, Ekainen edo Mendaroko Agarren aurkitutako tresnekin batera, Sevillan, Santanderren, Frantzian edota Alaskan aurkitutakoak ere bildu ditu museoan. Eta materialeri dagokionean, hezurra lantzen hasi zen lehenengo, eta horregatik jarri dio hein batean museoari Hezur Museoa izena, baina

orain harrizkoak, harri-bitxiz eginikoak, brontzezkoak, metalezkoak, marfilezkoak eta egurrezkoak ere egiten ditu. Arkeologia munduko jende asko ezagutu du Internet bidez, eta haien bitartez eskuratzen ditu lanerako materialak eta piezak trukatzan dituzte. Lan tresnak, orratzak, kontxak, musika instrumentuak, animaliak, arkuak, geziak eta garai hartako kontsolagailu bat ere jarri ditu ikusgai. Arkeologia adituen arabera, museo oparo eta aberatsa sortu du.

## INAUGURAZIOA

Zapatuan zabalduko du Marquezek museoko atea, eta bisita gidatuak eskaintzearekin batera, tailerrak egingo ditu, historiaurreko gizakia nola bizi zen azaltzeko. Aranzadiko eta arkeologia munduko adituak ere gonbidatu ditu ekitaldira, eta hainbat erakustaldi egingo dituzte zuzenean: Mikel Agirre arkeologoak esaterako zuzenean zizelkatuko ditu harriak. Edu Gordok, bestalde, sua egiteko hainbat teknika menderatzen ditu eta horietako batzuk erakutsiko ditu. Marquezek litofono bat ere egin du, eta baita komunikaziorako erabiltzen zuten adar handi bat ere, eta horiek probatzeko aukera ere egongo da. Horrekin batera, historiaurreko gizakiek egiten zituzten irudiak eta eurek egiten zituzten moduan egiteko tailer bat ere prestatuko du. Zapatuan goizez eta arratsaldez egingo dituzte erakustaldiak Artetxe auzoko parkean, eta domekan, goizez.

Oraindik aterik ez du zabaldu museoak, eta dagoeneko txiki geratu zaio. Izan ere, edozein momentu aprobetxatzen du Marquezek tresnak egiteko, eta ez zaizkio egindako guztiak kabitzen. Egin eta egin dihardu, eta "gutxienez bizitzan behin bisitatu beharreko museo" sortu du. Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko arkeologia aditu askok goraiatu dute bere lana, eta Europako edozein museotan erakusteko moduko lanak sortu dituela esan diote. Pozik dago jasotako kritikekin, "oso pozik", baina ez dago aseta. Marquezek harago joan nahi du bere museoarekin, baina ez du aurrera egiteko laguntzarik jasotzen. Laudorioak eta kritika onak bai adituen partetik, baina erakunde publikoetan ez du babesik aurkitu, eta egoera horretan aurrera egitea ezinezkoa zaio. Langabezian dago, eta bere ametsa museo honi irtenbide profesionala ematea da. Iruditzen zaio baliagarria izan daitekeela museoa bai hezkuntzarako eta baita Debabarreneko turismoa sustatzeko, baina oztopo asko aurkitu ditu bidean. Eskola-umeei historiaurrea modu didaktiko eta interesgarrian erakusteko aukera ematen du museoak bere ustez, praktika bidez erakutsitako edukiak direlako betirako oroimenean geratzen direnak. Eta turismoari dagokionean, Karakateko Dolmenen ibilbidearekin eta Moruko burdin aroko herrixkarekin batera, eskaintza aberatsa osatzen dela iruditzen zaio.

Elgoibarko Udalari eskerrak eman dizkio lokala uzteagatik eta emandako diru-laguntzagatik, baina etorkizuna ilun ikusten du, eta beldur da bere lana ezkutuan geldituko ote den.





## 54. Durangoko Azoka

Durangoko Azokak 405 nobedade eta 200 kultur ekitaldi baino gehiago izango ditu aurten, eta nobedadeen artean badira elgoibartarren lanak ere. Danele Sarriugartek hiru liburu ekarri ditu euskarara: 'Feminismoa %99aren alde', 'Bihotzaren iparraldea' eta 'Arimaren etorkizuna'. Jasone Osorok, berriz, gaztetxoan artean izugarritzko arrakasta izaten ari diren bi liburu argitaratu ditu 'Goazen' telesailaren harira: 'Iritsi gara' eta 'Eiderren egunerokoa', eta Uxue Alberdik, 'Lo potolo' haurrentzako ipuin-bilduma osatu du, beste zortzi sortzaileekin batera. Autoekoizpenen sailean, berriz, Ander Errasti eta Sonia de la Maza senar-emazteek eta haien seme-alaba Jon eta Maitek familian egindako bigarren lana aurkeztuko dute Durangon: 'Herensugeen itzulera V.: Sataripeko guda'. Azoka gaur zabalduko dute, eta domekara bitartean egongo da zabalik, 10:30etik 20:00etara.

- AINARA ARGOITIA-

### ► DANELE SARRIUGARTE

Itzulpegintzaren inguruko gogoeta egin du Anjel Lertxundik 'Itzuliz usu begiak' bere azken saiakeran. Euskal literaturaren sistemak itzulpena behar-beharrezkoa dela dio eta balioa eman behar zaiola ondo egindako lanari. Eta ez du arrazoirik falta. Durangorako hiru itzulpen lan handirekin dator Danele Sarriugarte (Elgoibar, 1989).

## Euskarari emandako hiru lan



◆ Euskarara ekarri dituzun saiakera feministen artean, Nancy Fraser, Cinzia Arruzza eta Tithi Bhattacharyak idatzitakoa da azkena: 'Feminismoa %99aren alde'. Manifestu bat da, eta Txalapartak eman du argitara. Zer dio?

Gehiengoaren alde egingo duen ezkerreko feminismoa aldarrikatzen dute. AEBetan egin zen grebaren harira idatzi zuten liburu

dua, sei eskutara, baina kuriozosa da, hango ikuspuntutik idatzita badago ere, Europan egin diren greba handiak hartzen dituztelako aldarrikatzen duten kaleko feminismo horren eredutzat. AEBetan azken urteotan komunikabideetan eta nabarmendu den feminismo liberal enpresarial horrek porrot egin duela esaten dute. Feminismo liberal horrek Hillary Clinton eta jende hori du oinarrian, enpresa munduan nahiz politikan gora egin duten emakumeak, hezkuntza maila bat dutenak eta baliabide ekonomikoak dituztenak, baina feminismo horrek emakume gutxi batzuentzat bakarrik balio du. Fraserrek, Arruzzak eta Bhattacharyak esaten dutena da feminismo horrek porrot egin duela eta feminismo anti-



kapitalista aldarrikatu behar dela, kapitalismoaren kontrako beste borroekin batuko dena. Ez dugu ahaztu behar kapitalismoaren kontrako beste borroka askotan dabiltzanak, adibidez, Latinoamerikan lurraldeen defentsan eta meatzaritza proiektu handien kontra borrokan ari direnetako asko, emakumeak direla. Eta nik uste dut Euskal Herrian, gutxi gorabehera, eredu hori dela nagusi: kaleko mugimendu antolatua, hauek aldarrikatzen dutena.

♦ **Manifestuek asmo bat izan ohi dute. Zein da liburu honena?**

Mugimendu feministaren norabidea aldatzeko proposamena da liburu eta gaur egungo eredu neoliberalari kontra egiteko bideak proposatzen ditu. Kapitalismo neoliberalaren krisi horren barruan bizi ditugun krisi guztien errepassoa egiten dute autoreek (gizarte antolamenduaren ingurukoa, ekologikoa...) eta herritarren gehiengoaren egoerak eta premiak erdigunean jarriko dituen feminismoa proposatzen dute. Hamaika tesi edo arazo planteatzen dituzte, eta arazo horien aurrean feminismoak zer ekarpen egiten duen jasotzen dute. Adibidez, kartzelaren inguruko kritika egiten dute. Garbi dute emakumeen kontrako sexu indarkeriaren aurka zerbait egin behar dela, baina zapalkuntzen gurutzatzeen teoriaraino oinarrituta, gogoeta egiten dute arazo horri erantzun kartzelarioa ematearen inguruan kartzela arrazista delako berez eta egitura edo instituzio problematiko horrek arazo larriak sortzen dituelako.

♦ **Egungo krisi sozial, politiko, ekologiko eta ekonomikoaren aurrean oposizioa egiteko bidea ezkerreko feminismoa da, hortaz.**

Bai. Autore hauek planteatzen dutena da krisi horren kontra egiteko bi korrante nagusi daudela: batetik, feminismo liberala, esaten duena emakumeen, LGBTren... aldekoa dela, baina funtsean, oso kapitalista dena eta ondorioz ez duena bermatzen herritarren gehiengoaren ongizatea; eta bestetik, badagoela halako populismo neofaxista edo faxista bat ari dena bideratzen jendeak dauzkan kezak, baina dena diskurtso arrazistei oso lotuta. Eta esaten digutena da horiek ez direla bi aukera bakarrik. Hau da, sortu behar dela herritarren gehiengoaren beharrei eta beste gizarte antolamendu bat eraikitzeko beharri erantzungo dien eredu, eta horretarako, feminismoak talaia paregabea duela. Manifestu komunistan inspiratu dira hau idazteko, eta zera esatera datoz: batu zaitezte munduko langileak, baina langileen ulerkera askoz zabalago batekin. Alegia, manifestu komunista publikatu zenetik gaur arte komunismoari eta marxismoari egin zaizkion kritika guztiak kontuan hartu behar direla.

♦ **'Arimaren etorkizuna' da Durangoko Azokarako aurkeztuko duzun bigarren itzulpena.**

Bai, Eva Illouzen bi testu labor dira, liburu batean bilduta: *Arimaren sorrera* da bata, eta *Estandar emozionalen sorrera*, bestea. Illouz soziologoa da eta asko landu ditu maitasuna eta emozioak, baina ez hainbeste ikuspegi psikologiko batetik, baizik eta ikuspegi kapitalista batetik. Aztertu du nola maitasuna

edo bikote harremanen egitura hori produktu bat den eta nola emozioak ere gero eta gehiago diren kudeatu behar ditugun gauzak. Gaur, denok izan behar gara kapazak gure emozioez hitz egiteko, eta horrek ere izan dezake bere alde ona, baina lotu behar da baita ere gizartearen eraldaketarekin. Eta horren harira Illouzek dio arimaren inguruan hitz egitea aspaldiko kontua dela, baina arimak galdu duela lehen gizarte erlijiosoetan edo erlijioak pisu handiagoa zeukan gurea moduko gizarteetan zeukan lekua eta psikeak edo psikologiak bete duela orain. Eta hor gogoeta egiten du gure barne inkontzientearen medikalizazioaren inguruan. Labor esateko, lehen konfesatzerara apaizarenen joaten ginela, eta orain, medikuaren kontsultara, edo psikiatrarenera edo psikoanalistarenera bestela. Arimaren eta psikearen arteko konparazio moduko bat egiten du Illouzek eta zalantzan jartzen du gaur egungo antolamendua, psikoanalisiaren eta psikiatriaren bidez kudeatzen dena, zeinean helburua beti den sufrimendua minimizatzea, eta ahal bada, errotik kentzea. Baina Illouzek gogorarazten digu sufrimendua bizitzaren parte dela eta gaur zer egiten ari garenean hausnartzera bultzatzen gaitu.

Bigarren testua adimen emozionalaren industriari buruzkoa da, eta erakutsi nahi duena da adimen emozional hori oso lotua dagoela langileek hobeto lan egiteko estrategia merkantilistekin. Langileak errendimendu handiagoa izateko sortu ziren pertsonalitate testak-eta AEBetan, eta handik zabaldu ziren mundu guztira, eta Illouzek esaten diguna da adimen emozionalaren kontua ez dela gauza inozente bat; ez zela sortu, besterik gabe, herritarren ongizatea hobetzeko, baizik eta langileak produktiboago izan zitezten.

**Eta oraindik ez da liburu dendetara iritsi, baina Durangorako zure beste lan bat ere izango dugu, Dolores Redondoren azken lanaren itzulpena: 'Bihotzaren iparraldea'.**

Enkarguzko lan bat izan da hori, eta bai, Dolores Redondoren *La cara norte del corazón* liburuaren itzulpena da. Sona handia izan duen *Baztango trilogia* idatzi zuen Redondok eta trilogia hartako protagonista den Amaia Salazarren AEBetako ibilerak kontatzen ditu Redondok liburu honetan, Nafarroako foruzingoko inspektore bilakatu aurretik Salazarrek AEBetan FBIrekin izan zituen hartuemanak eta abar. Nobela poliziakoa da.

♦ **Ez dakit Durangoko Azokarako hiru liburu itzulita datorenari galdetzekoa den, baina zertan ari zara orain, edo zer besteri heltzeko asmoz zabilta?**

Azala Kreaio Espazioak sortu duen *Zirriborroak eta gero* egitasmorako ari naiz lanean, eta oso gustura. Katixa Agirrek egin zuen lehen kontakizuna proiektu horretarako, Gasteizko Errekalear auzoaren inguruan [*Loratze perimetroa* jarri zion izenburua] eta Iban Zalduak, bigarrena. Alternatiba sozioekologikoak lantzen dituzten proiektu bat aukeratu behar da eta horri buruzko narrazio bat idatzi. Istoria hori idazten ari naiz orain, urtarilerako entregatu beharra daukat-eta.

## ▶ JASONE OSORO

Bi liburu berrirekin dator Jasone Osoro (Elgoibar, 1971): 'Iritsi gara' eta 'Eiderren egunerokoa', biak ere 'Goazen' telesailaren harira sortutakoak.



*"Irakurle gazteak harrapatzea da nire helburua, ikusaraztea irakurtzen ere ondo pasatzen dutela"*

### ◆ Zer kontatzen du liburu bakoi-tzak?

Estreinatuta berri den denboraldian ia pertsonaia guztiak berriak dira eta horiek aurkeztu behar ni-tuen.

Basakabira bidean doaz, batzuk autobusez eta beste batzuk autoz. Kamioi batek errepidean gurutzatzea egingo du eta auto-ilara izugarriak sortuko dira. Zain egotea tokatuko zaie denbora luzean, eta tarte horretan gertatzen zaiena kontatzen dut *Iritsi gara!* liburuan.

*Eiderren egunerokoa* da bigarren liburua eta pertsonaia nagusia Eider da. Basakabin oso azaletik kontatuko du harreman toxiko bat izan zuela mutil batekin, eta liburua harreman toxiko horri buruzkoa da. Eiderrek eguneroko bat idatziko du eta bertan azalduko du harremanaren bilakaera. Uste dut oso inportantea dela nerabeentzat harreman toxikoa zer den identifikatzea.

Liburu bildumaren helburua telesailetik kanpo, Basakabin ez daudenean, gazte horien bizitza nolakoa den kontatzea da.

### ◆ Gazte literaturan diharduzu azkenaldian. Zein berezitasun dauka genero horrek? Gustura sentitzen zaren generoa al da?

Egia da azken urteak nerabe eta gazteentzat idazten eman ditudala eta gustura sentitzen naiz, bai. Irakurle gazteak harrapatzea da nire helburua, ikusaraztea irakurtzen ere ondo pasatzen dutela. Horretarako, estilo zuzena erabiltzen dut, erraz irakurtzekoa, atal laburrekin, dialogo eta akzio askorekin, beraiek identifikatzeko moduko istorioekin eta balioak ere txertatuz.

### ◆ Gazteek "gutxi" irakurtzen dutela esaten da, eta paperean are gutxiago. Zer esango zenuke?

Ni gaztea nintzenean ere gauza bera esaten zen, gazteek

gutxi irakurtzen zutela. Aurretik esan dudana bezala, uste dut inportantea dela oso txikitatik librea uztea zer irakurri nahi duten, eta argi esatea probatu egin behar dutela. Musikarekin, telebistarekin edo janariarekin egiten den bezala. Gustuko ez duten abesti bat entzuteagatik ez diote musika entzuteari uzten, ezta? Bada, liburuarekin gauza bera egin behar dute, probatu, gustuko ez dutena utzi eta beste liburu bat hasi... Edonola, literatura beti izan da minoritarioa eta seguruenik halaxe izango da beti.

### ◆ Zer eskaintzen die Durangoko Azokak euskal kulturalei? Garrantzitsua da zuentzat Durangoko Azokan egotea?

Durangoko Azokak liburu eta musikaren inguruko hiru zuta-beak uztartzen ditu: sortzailea, zaletua eta industria. Egun eder-rak dira elkar ezagutzeko, aspaldiko lagunekin geratzeko, idazleen hitzaldietan eta musika kontzertuetan zuzenean gozatzeko, parranda egiteko, familiarekin joateko, liburu eta diskoak erosteko. Garrantzitsua ez ezik, beharrezkoa ere bada Durangoko azoka.

### ◆ Zein egoeratan ikusten duzu euskal literaturgintza?


Bizirik dagoela bistan da, ezta? Edozein literaturak behar du eskaintza zabala egotea, genero guztiak lantzea, ahots ezberdina, adin eta gustu ezberdinei zuzendutako, gai askotarikoak lantzen dituen, esaterako feminismoari buruzko bildumak, album ilustratuak... Euskal literaturan ere ari da hori guztia gertatzen eta oraindik ere hutsuneak egon arren, nik esango nuke bide onetik goazela.

### ◆ Aurrera begira zein proiektu dituzu eskuartean?

Literatura sorkuntzari dagokionean, bukatu berri dut *Goazen* bildumako bigarrena eta orain atsedena behar dut, kargatu eta ideiez betetzeko. Etorriko da istorioen bat berriz ere.

## ▶ UXUE ALBERDI

Lotara joaterakoan, haurrei irakurtzeko ipuinak, poemak eta jolasak biltzen dituen liburua aurkeztu dute Harkaitz Cano, Eider Eibar, Juan Kruz Igerabide, Leire Bilbao, Anjel Lertxundi, Miren Agur Meabe, Mixel Murua, Patxi Zubizarreta eta Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984), *Alberdarnia argitaletxearen* eskutik.



*"Belarriz jasotzeko idatzi ditut testuak"*

### ◆ Testu askotarikoek eta ilustrazio ikusgarriak osatzen dute 'Lo Potolo' lotara joateko ipuinen bilduma. Zerk bultzatuta hasi zineten?

Mixel Muruaren ideia izan zen lotara joateko ipuinen bilduma hau sortzea, baina Muruak aurkezpenean esan zuen Andu Lertxundik bultzatu zuela, Lertxundik ohar-tarazi zuela halakoan beharraz. Guri hiruna testu idaz-

teko eskatu ziguten gero. Haurrei kontatu nahiko geniekeen hori kontatzeko eskatu ziguten; guk, haur moduan, entzun edo jaso nahiko genukeen hori kontatzeko. Eta hasieratik esan ziguten ume nahiko txikientzako liburua izango zela, eta beraz, gurasoek kontatzeko ipuinak izan behar zirela eta ez umeei euren kabuz irakurtzekoak. Garbi neukan belarriz jasotzeko testuak izan behar zirela beraz, eta horixe kontuan hartuta idatzi ditut nire hirurak: *Ama txoria balitz* ipuina, gauari jarritako bertso-sorta eta itsasoko izakiekin osatutako poema.

#### ♦ Zer ezaugarri ditu liburua?

Oso testu jolasiak dira, umore ukitu handikoak. Umeentzat edo umeei ari garenean bi joera nagusi izaten ditugu helduok: badugu haurrak hiper-estimulatzeko joera bat, eta badugu umea oso kontu handiz zaindu behar halako bat ere, eta iruditzen zait liburuan oreka polita lortu dela, oso ipuin lasaiak direlako denak,

gauerako egokiak, eta umore dosi handikoak. Andu Lertxundik, adibidez, animalien onomatopeiez osatu du bereetako bat: *Behiak muuu!* Ipuin horrek jolaserako bidea ematen dio haurrari eta oso egokia izan daiteke hezkuntzan lantzeko ere. Askotan ipuinak idazteko eskatzen diegu eskoletan umeei, baina erremintarik eman gabe, eta halako ipuinek ematen dute hortarako bidea. Aurkezpenean ere esan zuten sarri, merkatu-estrategiangatik, Gabonetan opariak egiteko erosten ditugula ipuinak edota umeei lotara joan aurretik zer irakurria izateko, baina ipuinak oso bitarteko egokiak direla hezkuntzarako ere. Testuez ari garela esan dezaket askotarikoak direla, baina oreka zaintzen saiatu direla argitaratzaileak. Ilustrazioak, berriz, Eider Eibarrenak dira, eta zoragarriak dira. Sekulako lana egin du Eiderrek. Berak ere esan zuen horrenbeste irudi daudela bilduma honetako hitzetan, zaila, oso zaila, egin zaiola, irudiak aukeratzea.

## ▶ ANDER ERRASTI



### *Familian idatzitako bigarren liburua*

**H**erensugeen itzulera liburua-ren bigarren atala aurkeztuko dute domekan (Xaguganbara aretoan, 13:00etan) Ander Errasti eta Sonia de la Maza senar-emazteek eta haien seme-alaba Jon eta Maitek. *Herensugeen Itzulera V. atala. Sataripeko Guda*


jarri diote izenburua eta autoekoizleen mahaian (Goenkale, 72) jarriko dute salgai (Elgoibarren, Pitxintxu liburu dendan ere eskuratu daiteke). Duela lau urte hasi zuten proiektua, familian, eta halaxe osatu dituzte testu eta ilustrazioak ere, familiako lau kideen artean. Hiru hizkuntzatan eman dute argitara liburua: euskaraz, gaztelan eta ingelesez.

*Herensugeen itzulera* liburuan mutiko bat zen protagonista nagusia, eta bigarren atal honetan, neskatila bat da Aragreb kostaldeko herrian arrantzaleen bizitza lasai eta baketsua azoratu duten piraten kontrako borroka zuzenduko duena: Etiam. Altxor baten mapa topatu dute pirattek eta altxor horren bila oldartuko zaizkie Aragreb eta inguruetako herritarrei. Oifragek, piraten komandanteak, baina, Etiam gerlari eta itsas kapitainarekin topo egingo du, eta hark itsasontzi bat atonduko du Aragrebeko biztanleekin Oifragi eta haren tropei aurre egiteko. Borroka eta guda latzak izango dituzte, eta egoera arriskutsu askori egin beharko die aurre Etiam gerlari ausartak. Zeregin horretan zaindari maitagarrien eta iratxoek laguntza ere izango du.

Bigarren liburua argitaratuta, hirugarren bat lantzen ere hasi da Errasti-De la Maza familia. "Ilusionatuta ikusten ditut seme-ala-

bak eta ilusio horrek irauten duen bitartean jarraituko dugu, familian denbora libre elkarrekin igarotzeko hasi genuelako proiektu hau eta oso aberasgarria ari delako izaten gu guztiontzat", adierazi du Ander Errastik. Lau urte dira proiektua hasi zutela eta aipatu du seme-alabak hazi ahala, haien parte-hartzea ere handitu dela eta rola ere aldatu dituztela. "Lehenengo liburuan neuk idatzi nuen gidoia eta semea eta bion artean egin genituen ilustrazio gehienak. Protagonista nagusia ere semearen proiektio bat izan zen. Oraingo honetan, alabaren proiektio batetik sortu dugu Etiam gerlaria, eta Maitek berak parte-hartze handiagoa izan du bai testuetan eta baita ilustrazioetan ere. Hirugarren libururako gidoia, berriz, semeak idatzi du, Jonek".

Hasita baitaude hirugarren liburua prestatzen ere. "Presarik gabe, eta ilusio handiz". Horrez gain, webgune bat sortzeko lanetan ere badihardute eta gustatuko litzaieke libururako sortu dituzten marrazkiekin erakusketa bat osatzea ere.



# EUSKARALDIA:

## gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

### Ariketak balio du!

Euskaraldia ekimenaren lehen edizioak onarpen sozial zabala izan zuen. Apenas izan zuen kontrako diskurtsorik. Parte-hartzea itzela izan zen, eta, oro har, jendeak bete zituen hartutako konpromisoak. Ariketak erakutsi du balio duela hizkuntza-portaeretan eragiteko.

### Ahobizi eta belarriprest

Lehen edizioko ariketa-metodologia errepikatuko da, *ahobizi* eta *belarriprest* rolekin. Helburuak ere berdinak dira: euskara gehiago erabiltzea, gehiagotan eta gehiagorekin. Hizkuntza-ohituretan eragin nahi da, eta gizartearen aktibazioa sustatu.

### 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

15 eguneko ariketa, hizkuntza praktika berriak bultzatzeko euskararen mesedetan.

### Entitateek ere egingo dute!

Entitateen parte-hartzea izango da bigarren edizioko berrikuntza nagusia. Entitateek ere era aktiboan parte hartuko dute. Euskaraz jarduteko aukera daukaten guneak edo hiztun taldeak identifikatu beharko dituzte entitateek (*ariguneak*). Entitateetako hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan aldatzea da helburua. Era askotariko entitateak izango dira: erakunde publikoak, ikastetxeak, kultur eta kirol elkarteak, gizarte mugimenduak, denda-taberna eta jatetxeak, enpresak ...



## Ariguneak

Bigarren ediziorako propio asmatutako berba da. Euskaraz lasai aritzeko gune edo talde babestuak izango dira. Bi baldintza bete beharko dira *arigune* bat sortzeko: bat, kide guztiek ulertu beharko dute euskara; eta bi, gune edo talde horretako % 80k erabakiko dute ariketa egin nahi dutela.

## Entitateek eman beharreko urratsak

1. Ariketan parte hartu nahi duten ala ez erabaki behar du entitate bakoitzeko zuzendaritzak.
2. Baiezko kasuan, *ariguneak* sortzeko aukerarik badaukaten aztertuko dute.
3. *Ariguneak* sortzeko aukera dagoen kasuetan, entitateak izena emango du Euskaraldian, zenbat *arigune* sortuko diren zehaztuta.

## Bi arigune mota

Bi motatako *ariguneak* sor daitezke:

1. **Barne-ariguneak:** barne funtzionamenduari lotutako guneak edo taldeak: bulego bat, kirol talde bat, enpresa bateko sail bat ...
2. **Kanpo-ariguneak:** jendearekin harremanetan dauden guneak: kiroldegiko harrera gunea, taberna edo denda bateko mostradorea ...

## Noiz eman behar da izena?

### Entitateek:

2020ko uztailera arte.

### Norbanakoek:


2020ko irailetik aurrera.


## Elgoibarko EUSKARA Taldearen lan-plana:

Abenduan bi zeregin nagusi izango ditu taldeak. Euskaraldiaren bigarren edizioa gizarteratzea izango da lehena. Horrekin batera, eragile-sarea osatzeko lanetan ere hasiko da. Lehen edizioan izena eman zuten guztiek jasoko dute eragile-sarean izena emateko gonbita. Eragile-sareko kide bakoitzak Euskaraldia entitate bati aurkeztea da ideia (norberak aukeratuko du zein entitate). Gero, urtarillaren amaiera aldera, eragile-sareko kideek formazioa jasoko dute, otsailean entitateak bisitatzen hasteko. Ahalik eta entitate gehien bisitatzeko da helburua, eta horregatik eskatuko da jendearen parte-hartzea.

Taldearekin harremanetan jartzeko:

 elgoibar@euskaraldia.eus

 943 74 16 26

 643 499 169

 euskaraldiaelgoibar





Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Pista Beltzeko lorontzietan belar txarrak irten dira:** "Pista Beltzeko lorontziak oso politak dira, baina belar txarrak irten zaizkie, eta inork ez ditu txukuntzen. Dago-kionari eskertuko nioke lorontzi horiek txukuntzea".



**Arregitorre auzoan autoak gaizki aparkatuta egoten dira:** "Oso ohikoa da Arregitorre auzoan autoak gaizki aparkatuta ikustea, eta badirudi ez dela ezer gertatzen. Garajeetarako bidea oztopatzen dute auto horiek, eta oso zaila izaten da hortik pasatzea. Jendeari errespetua eskatu nahi nioke, bizikidetzaz azken batean. Eta auzotarrek ez badute hori betetzen, udaltzainek esku hartu beharko luketela iruditzen zait, gaizki aparkatu arren, auto jabe horiek ez dutelako sekula isunik jasotzen".

**Neguan umeekin egoteko gune estali eta epel bat behar da Elgoibarren:** "Udalak ezin al du Oti 8 urtera bitarteko umeekin egoteko gune itxiren bat egokitu herrigunean neguko hilabeteetarako? Negua etorri zaigu ia konturatu gabe, eta horrelako egun hotz eta euritsuetan ez daukagu umeekin egoteko lekurik. Maalako parkea estalia da, baina ez ditu umeekin egoteko baldintzak betetzen. Jarlekuak eta jolasak busti egiten dira, eta ibai aldetik etortzen den haize hotza jasanezina da. Aita Agirre kulturgunearekin geratu dira herrigunean hainbat gune hutsik, Kultur Etxea eta liburutegi zaharra, esaterako, eta Merkatu Plazan ere badaude lokalak hutsik. Eibarren, Astelena frontoian umeentzako parkea jartzen dute neguko asteburuetan, eta horrelako zerbait ere ondo legoke Elgoibarren. Umeekin egon ahal izateko gune itxi eta epel bat beharrezkoa da". Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailetik jakinarazi dute gai hau eskuartean dutela, baina oraindik ez dutela ezer erabaki, ez dutelako toki aproposik aurkitu.

**Kiroldegiak ordutegi zabalagoa eduki beharko luke asteburuetan:** "Kiroldegiko ordutegia oso murrizta da asteburuetan. Olaizaga kiroldegiak erabiltzailere asko ditu, bai astean zehar, eta baita asteburuetan ere. Igerian egitera joaten gara asko, eta igerilekua gainezka egoten da uneoro, baina asteburuetan arazoa areagotu egiten da, kiroldegia ordu gutxiagotan zabaltzen dutelako. Eskertuko genuke astegunetako ordutegi berbera mantentzea. Horrez gain, garbiketa zerbitzua ere hobetu behar dela iruditzen zaigu. Goizez garbitzen dute kiroldegia, eta eguerdi alderako igerilekuak ez dira garbi egoten. Aldageletan usain txarra egoten da, eta zikin ikusten dira. Eskertuko genuke garbitasuna ere gehiago zaintzea".

**Herriko igogailuak sarritan hondatzen dira:** "Zer gertatzen da herri honetan igogailuekin? Anbulatorio aurreko igogailua konpontzen hasi zirenetik hilabete baino gehiago pasatu da, eta oraindik geldirik dago. Eta Olasoko igogailua ere sarri hondatzen da, eta horrek Sigmako bizilagunei kalte handia eragiten die. Azkenekoz hondatu zenetik bi edo hiru aste pasatu dira dagoeneko. Badirudi asteburuetan umeek igogailuaren erabilera okerra egiten dutela, eta horren ondorioz hondatzen direla. Agian kamarak jarri beharko dira, benetan zer gertatzen den ikusteko, baina egoera hau konpondu beharra dago lehenbailehen". Hirigintza Sailetik jakinarazi dute ambulatorio aurreko igogailua datorren asterako martxan egongo dela eta Olasokoa konpontzeko abisua ere emanda dagoela eta lehenbailehen konponduko dutela.

## Mintxetak eta Udalak urtez urte berrituko duten hitzarmena sinatu dute

**M**intxeta Atletismo taldeak antolatzen duen Juan Mugertza Nazioarteko krosa eta beste hainbat kirol ekimen diruz laguntzeko hitzarmena adostu dute Mintxetak eta Elgoibarko Udalak, 2016tik 2019ra indarrean izan den hitzarmena berrituz. Martitzenean sinatu zuten hitzarmena, udaletxean. Bi berritasun nagusi ditu hitzarmenak. Bateatik, hitzarmen hau 2020ko edizioan jarriko dela indarrean, eta gero, urtero luzatu eta berrikusi ahal izango dela 2023ra bitartean, Mintxeta Atletismo Taldeak hurrengo urtetako antolakuntzari aurre egiteko gaitasuna baldin badu. "Une honetan ezin dugu krosa antolatzeko epe luzeagorako konpromisorik hartu. Neurri handia hartu du krosak, asko hazi da, gero eta gogorragoa da antolatzea eta urteak aurrera doaz guretzat. Horregatik erabaki dugu gure konpromisoa urtez urte berritzea, gure barruko antolaketa hobe dela uste dugulako", azaldu du Mintxetako Mintxeta kirol taldeko lehendakari Zigor Diez Cidek. Bigarren berrikuntza nagusia Udal Kirol Patronatuak diru-laguntza handiagoa emango duela da. Mugertza krosak izan ditzakeen hiru kategorien arabera (IAAF, EAA edo RFEA) diru kopuru bat edo beste jasoko du Mintxetak. Mailarik baxuena balu, ale-



gia, Espainiako Atletismo Federazioarena, 25.000 euro jasoko lituzke urtean. Kasu honetan ez da aldaketarik izan. Aldiz, gogorago bi mailetan badago, orain arte baino 2.000 euro gehiago jasoko ditu Mintxetak: 30.000 euro krosa EAA kategoria barruan jokatzen bada eta 32.000 euro kategoria gorenean, IAAF kategoriarean jokatzen bada.

### Abendua, xakearen hilabetea



Xakelarien hilabetea izango da gurean abendua, hainbat xake txapelketa antolatu baitituzte datozen egunetarako. Dagoeneko jokoan dago Uztargi Xake Azkarreko txapelketa, Mendaron. Asteburu honetan, abenduaren 8an, jokatuko da Createch Medical Emakumeen I. Xake Txapelketa, Aita Agirre Kulturgunean. Eta, datorren astean hasiko da Nazioarteko Xake Txapelketaren 29. edizioa. Abenduaren 12an egingo dute aurkezpena, 13:30ean, udaletxeko pleno aretoan. Udal Kirol Patronatuak, Euskadiko Xake Federazioak eta Zubi-Ondo Xake Elkarteak antolatutako torneoan puntako hamar xakelari arituko dira lehian, abenduaren 18ra bitartean. Xake txapelketa gehiago ere izango dira Elgoibarren urtea amaitu baino lehen. Eskola Kiroleko Xake Txapelketa abenduaren 15ean jokatuko dute Kultur Etxeko sotoan (16:00), eta egun berean jokatuko da Danobat Xake Azkar Txapelketa, sotoan baita ere, baina goizez, 10:15etik aurrera.

### Cheptegeik marka ezarri du 10 kilometro munduko proban

Elgoibarren antxixika egindako atletek zeresana ematen jarraitzen dute atletismoan. 2017ko Mugertza krosa irabazi zuen Joshua Cheptegeik 10 kilometroko probako munduko marka ezarri zuen, aurreko domekan, Valentzian. Atleta ugandarrak 26 minutu eta 38 minutuko denbora egin zuen. Mugertza kroseko jarraitzaileen artean ezaguna den Leonard Komonen marka ondu zuen. Cheptegei sekulako denboraldia egite ari da, Munduko Kros Txapelketa irabazi ostean, 10.000 metrotako Munduko Txapelketa irabazi baitzuen Dohan.



## Elgoibarko ikasleak 'EusLiderrak' egitasmoan parte hartzen ari dira



*Ikastolako ikasleak.*

**E**lgoibarko Udala, Elgoibar Ikastola, BHI Institutua eta Ahize-AEKren arteko lankidetzari esker, martxan da *EusLider* egitasmoa ikasturte hasieratik. Gazteen artean hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera informala sustatzea dira tailer horien helburuak. Ahize-AEK-k DBHko gaztetxoekin lanketa egiteko eusliderrak tailerra sortu zuenean argi izan zuen hizkuntza ohituretan eragitean dagoela gakoa, eta hizkuntza portaerak aldatzea baino eraginkorragoa dela hizkuntza ohitura berriak eraikitzea. Elgoibarren DBH 3ko 120 bat ikasle ari dira parte hartzen: hiru talde institutuan, eta beste hiru ikastolan. Tailerraren lehenengo zikloan hiru saio teoriko eman dituzte, eta urtariletik aurrera, hiru saio praktikoko egingo dituzte, ekintza sozial bat antolatzeko helburuarekin. Amaitu berri diren motibazio saioen ostean 30 ikaslek (%25) eman dute izena aurrera egiteko eta Elgoibarren ekintza soziala antolatzeko ardura hartu dute. Horretarako, Ahize-AEK-ko kideen eskutik aholkularitza eta formazioa jasoko dute.

## Eguberrietako bertso jaialdirako sarrerak salgai, astelehenetik aurrera

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak Eguberrietako Bertso Jaialdia antolatu du abenduaren 26rako, Udalaren lankidetzarekin eta Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Sarrerak abenduaren 9tik 23ra bitartean salduko dituzte, elkarteak Ubirtarten duen egoitzan, eta epe hori amaitu ondoren sarrerarik geratzen bada, jaialdi egunean bertan Herriko Antzokiko txarteldegian salduko dituzte. Sarreraren prezioa 11 eurokoa da (10 eurokoa elkarteko bazkideentzat). Aurten Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Uxue Alberdi, Oihana Iguaran eta Aitor Bizkarra arituko dira bertsoan, eta Ainhoa Mendibilek egingo ditu gai-jartzaille lanak.

## Sanbartolomeak antolatzeke bilera abenduaren 11n

Elgoibarko Udalak 2020ko sanbartolomeak antolatzeke bilerara deitu ditu herritarrak, San Bartolome jaia prestatu dituen talde bat osatzeko asmoz. Aita Agirre kulturguneko Areto Nagusian izango da hilaren 11n, 18:30ean. Urtean sei bilera egitea aurreikusitako dute, eta esan dute garrantzitsua dela partaideak bilera guztietara joatea.

## Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, giro onean ospatu dute Kuadrilla Eguna

Elgoibarko Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak eta Berdintasun Sailak Kuadrilla Eguna antolatu zuten zaturako, herriko gazteekin elkarlanean. Eguraldi hotza eta euritsua egin arren, antolatzaileek esan dute giro onean ospatu zutela eguna. Egurdi partean Mauxitxa Txarangaren kalejirarekin hasi zuten eguna, eta bitartean, lau magok magia egin zuten kuadrillen artean. Maalako parkean egin zuten bazkaria, eta 175 lagun inguru batu ziren. Arratsaldean bingo-jokoa egin zuten, eta han batutako dirua herriko elkarteren bati emango dietela aurreratu dute, baina oraindik ez dute erabaki zeini. Iluntzean kalejira egin zuten, eta gauerako kontzertuak antolatu zituzten. Bigarren urtez antolatu dute Kuadrilla Eguna gazte-lokaletan biltzen diren neska-mutilen arteko harremanak "estutzeko" asmoz, eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek.



*Lau mago aritu ziren magia egiten.*



## Mauxitxaren '50 Txiki Elkarrekin' erakusketa eta dokumentala prest daude

**M**auxitxa Txaranga 50. Txiki Eguna ospatu du aurtengo San Bartolome jaietan, 50 Txiki elkarrekin lelopean. Horren harira, urte osoko egitaraua prestatu zuten txaranga kideek. Egun handia Txiki Eguna izan bazen ere, beste hainbat ekimen ere iragarri zituzten urteurrenaren aurkezpenean, besteak beste, argazki erakusketa eta dokumentala. Abenduaren 13an inauguratuko dute argazki erakusketa, eta hilaren 22ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hainbat eta hainbat erretratu jarriko dituzte ikusgai, Mauxitxa txaranga-



ren 50 urtetako Txiki Egunak errepassatzeko. Horrez gain, Txiki Egunari buruzko dokumentala grabatu zuten aurtengo jaietan, eta horren emaitza ere

prest daukate dagoeneko. Abenduaren 19an izango da emanaldia Herriko Antzokian, 21:00etatik aurrera. Sarrera doan izango da.

### Udalaren 2020ko egutegia Herritarren Arreta Zerbitzuan eskuratu daiteke

Udaleko Euskara Sailak atzo aurkeztu zuen 2020ko egutegia, eta dagoeneko Herritarren Arreta Zerbitzuan eskuratu daiteke. Aurtengo gaia Kirola Elgoibarren izan da. 28 herritarrek parte hartu dute, eta guztira, 112 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara. Udaleko eta Ongarri



Arg.: Asier Orbea

argazkilari elkarteko ordezkarienez gain, Udal Kirol Patronatuko ordezkariak eta Maite Maiora korrikalariak osatu dute epaimahaia, eta 13 argazki aukeratu dituzte. Hauek dira saridunak: Julen Ansola Iureta (3 argazki saritu), Gurutze Ariznabarreta Acha, Iñaki Aragon Perez (2 argazki saritu), Maite Loiola Zelaia, Alberto Fernandez Picon, Oier Ramos Miguel, Jabi Leon Casado, eta Asier Orbea Ostolaza (2 argazki saritu). Egutegi txikirako argazki saritua, berriz, Jose Ramon Cabrera Cidena izan da.

Argazkiekin batera, Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako LH5eko ikasleen marrazkiak ere ageri dira. 135 ikaslek parte hartu dute, eta epaimahaia Udaleko ordezkariak eta Gemma Monreal margolariak osatu dute. Saridunak ondorengoak izan dira: Yeraí Tavares Teixeira, Iago Fernandez Juaristi, Nahia Alvarez Avila, Olatz Garate Osoro, Laura Gonzalez Jurado, Manar Ahdadou Ahyayouch, June Mosquera Arenas, Sare Azpiazu de la Arada, Gorka Sota Rodriguez, Luken Arriola Alberdi, Elene Fernandez Garate eta Josu Bastida Diez.

Udalak 7.000 egutegi txiki kaleratu ditu, eta herri osoko postontzietan banatuko ditu; egutegi handiak (3.500 ale), aldiz, HAZen (Santa Ana, 2) eskuratu ahal izango dira ostegun honetatik aurrera. Datorren urteko gaia Berdintasuna Elgoibarren izango da.

### Abenduaren 17rako aurkeztu behar dira Mendaroko ipuin lehiaketarako lanak

Haur eta gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, ipuin lehiaketa antolatuta du aurtengo Mendaroko Udalak. Aurtengo, berrikuntzak izango dira lehiaketan: A mailakoek (LH1, 2, 3 eta 4) marrazki bat egin beharko dute ipuin bat irakurri ostean. B mailakoek (LH5, LH6, DBH1, DBH2), aldiz, ilustrazio batetik abiatuta, ipuina idatzi beharko dute. Azkenik, C mailakoek (DBH3 eta 4), gai bat emanda komiki edo bioneta bat sortu beharko dute, eskuz nahiz ordenagailuz. Lanak abenduaren 17rako aurkeztu beharko dira Mendaroko Udalean, eta sari banaketa urtarrilaren 5ean egingo dute, Errege Magoen desfilean. Ipuin lehiaketan laguntzeko idazte, marrazte eta sorkuntza tailerra antolatuta dute abenduaren 14rako. 17:00etan izango da, liburutegian.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ 632 640 801

Goizez edo iluntzetan lan egiteko prest. Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. Erreferentzia onak ditut. ☎ 677 155 611

Lanerako prest nago. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka lan egiteko prest. ☎ 602 490 595

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz, eta esperientzia daukat. ☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketarako ere egongo nituzke. Esperientzia daukat. ☎ 688 724 060

Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest nago. ☎ 632 893 515

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. ☎ 631 931 030

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat. ☎ 685 724 861/943 748 899

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Titulua daukat. ☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest. ☎ 615 526 482

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 658 273 486

Lan bila nabil. Esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ 631 795 790

Garbiketarako egin eta arropa lizatzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 648 063 061

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 665 528 409

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta gaurerik lan egiteko prest nago. ☎ 603 346 659

Umeak edo adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. ☎ 602 047 812

Adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 228 545

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 992 730

Mutil arduratsua naiz eta lan bila nabil. Igeltseritzan edo eraikuntza-lanetan lan egiteko nuke, bai eta pintore ere. Adinekoak zaintzeko ere prest nago. ☎ 697 666 992

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. ☎ 683 415 222

Txofer lanetarako prest nago. ☎ 666 009 166

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. ☎ 632 729 261

**Eskaintzak**

Neska euskalduna behar da urtariletik aurrera bi ume zaintzeko. ☎ 699 217 721

Odontologoa behar da Ermuko hortz klinika baterako. Bidali curriculum: *clinicalbajodeba@hotmail.com* ☎ 652 768 569

Esperientzia duen zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 659 539 861

**ETXEBIZITZAK.....**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren. ☎ 631 931 030

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 632 452 026

**BESTELAKOAK.....**

Giltzak aurkitu ditut San Frantzisko kalean, giltzako gorri batean. Udaltzaingoa laga ditut.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 6€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 5€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Entidad Pública Administradora  
Iuradiko Erakunde

**Eraikin batean bizi naiz, eta azken solairuan terraza zabala duen etxebizitza bat dago, eraikinaren azaleraren erdia hartzen duena. Jabe horrek hainbat obra egin ditu terrazan, eta ordutik nire etxebizitzan (behealdean dagoena) eragina duten ur filtrazioak daude. Komunitateak nire etxebizitzan agertu diren arazoak berri eman dio, eta etxe jabeak dio komunitateak konpondu behar dituela arazo horiek, terraza komunitateko elementua delako. Gainera, ez digu bere etxera sartzen laga, terrazan egin diren lanak egiaztatu ahal izateko. Jakin nahi nuke nola konpon dezakegun egoera hau.**

Berez, badirudi zure etxebizitzan eragindako kalteen erantzulea goiko etxebizitzaren jabea dela, egin dituen obrak direla-eta. Nolanahi ere, komenigarria litzateke profesional batek arazoak jatorria, arazoak konpontzeko proposamen bat eta konponketaren kostua egiaztatu ahal izatea. Planteatzen duzun bigarren gaiari dagokionez, Legeak ezartzen du komunitateko kide orok bere etxebizitzan sartzen utzi behar duela, kalteetako elementuak konpontzeko, baina Legeak berak ez du hori gauzatzeko prozedura espezifikorik arautu. Egoera horren aurrean, auzitegietara jo beste biderik ez dago, etxebizitzan sartzeko eskatzeko.

**Gomendioa. Ohiko prozedurara jo beharko dugu edo epaiketa bat proposatu beharko dugu, eragindako kalteak konpontzeko, eta kautelazko neurri gisa etxebizitzan sartzea eskatzeko, sortutako matxura edo dauden arazoak konpontzeko.**



**ROSAMA PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

660 969 679

rosapf@telefonica.net



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia 12:00ak baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Azkenian heldu da zure eguna! Mundiala zera! Pa haundi bat, **Eire**, bixar 4 urte egingo dituzulako.




Zorionak, **Aimar**, atzo 6 urte egin zenituzulako. Beti bezain alai eta jator jarraitu. Familiakoan eta bereziki, liberen partez.



Zorionak, **Hai-zea!** Urte askuan txapela kaskuan. Asko maite zaitugu. Larraitz, Laiene, Irantzu eta Jabi.



Zorionak, **Mara**, astelehenean 2 urte egingo dituzulako. Ondo pasatzen! Ahizpa Garazi eta familiako guztion partez, muxu potolo bat.



Zorionak, nire etxeko **printzesei**, azaroan 12 eta 8 urte bete dituzuelako. Patxo handi bat aitatxo, Moni, Duna eta Manexen partez.



Zorionak, **Intza eta Lizar**, 2 eta 4 urte bete dituzuelako. Patxo handi bana etxeko guztion partez.



Zorionak, **Aitana**, 6 urte egin dituzulako. Etxekoan partez, muxu handi bat.



Zorionak **Adei eta Enai**. Jarraitu irribarre horrekin! Asko maite zaituztegu. Aita eta ama.



Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**943 744 112**

**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**





**40.**  
urteurrena  
**UZURI**  
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

➤ **Abenduko eskaintza:**

**Betaurreko monofokala**  
**89€tik aurrera.**



➤ **Abenduko zozketa:**

**Police markako bi eguzkitako betaurreko,**  
**bakoitza 150€tik gora baloratuak.**



## 5 EGUENA

**19:00** Isiltasun Eskolaren meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

## 7 ZAPATUA

**10:00-13:00 eta 16:00-18:00** Hezur Museoaren inaugurazioa. Bisita gidatua eta tailerrak. Artetxeko parkean.

## 8 DOMEKA

**10:00-13:00** Hezur Museoaren inaugurazioa. Bisita gidatua eta tailerrak. Artetxeko parkean.

**10:30** Emakumeen Xake Txapelketa. Aita Agirre kulturgunean. Antolatzaileak: Kirol Patronatua, Gipuzkoako Xake Federazioa eta Zubi Ondo elkar-  
tea.

## 9 ASTELEHENA

**18:00** Emakumeentzako jabe-kuntza tailerra: 'Gabonak emakumeentzat'. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik emango du hitzaldia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Doan.

## 10 MARTITZENA

**16:30** Hitzaldia: 'Código ictus'. Jubilatuen biltokian. Antolatzaileak: AGIAC, Jubilatuen Biltokia, Nagusilan eta Ongizate Saila.

## 13 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: '50 Txiki elkarrekin'. Mauxitxa Txarangaren argazki erakusketa. Kultur Etxean.

**20:30** Antzerkia: 'La paz y otras lunas'. Ezezagunok antzerki taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

## KONTZERTU AZOKA, MENDARON

### 7 ZAPATUA

- 10:00** Azokaren hasiera.
- 11:00** Dultzaineroen kalejira eta sagardo lehiaketa.
- 12:00** Tikitixa taldekoen kalejira.
- 12:30** Izetako gurdian ibiltzeko aukera.
- 13:00** Rockalean taldearen emanaldia.
- Ondoren**, sari banaketa.
- 18:00** Herri kirolak. Frontoian.
- Ondoren**, txerri errea dastatzeko aukera.
- Segidan**, Rockalean.
- Ondoren**, DJ Pius eta DJ Esther.

## Azaroan hildakoak

• **Margarita Estarta**  
**San Martin**  
84 urte, azaroak 12

• **Pedro Cornejo**  
**Torres**  
75 urte, azaroak 12

• **Libe Iriondo**  
**Mugerza**  
83 urte, azaroak 21

• **Manuel Egaña**  
**Egaña**  
86 urte, azaroak 22



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**  
**635 756 295**  
**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00			Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
6 BARIKUA	7 ZAPATUA	8 DOMEKA	9 ASTELEHENA	10 MARTITZENA	11 EGUAZTENA	12 EGUENA	13 BARIKUA
Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b> (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guzian, gauz: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)



'Pequeñas mentiras para estar juntos'

6 barikua: 21:30  
7 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
8 domeka: 19:00  
9 astelehena: 21:30

'Abominable'

8 domeka: 16:30



**SAUBER WM7149  
ARROPA GARBIGAILUA**



**360 €**

Karga frontala / A+++ / 1400 r.p.m. / 7KG arteko karga / Ecoblue

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dandako prezioak. Produktuak agortu arte.



## ▶ Euskaraz hezi, euskaraz bizi

Elgoibarko eta Mendaroko ikastetxeetan Euskararen Eguna ospatu zuten abenduaren 3an. Herri Eskolako ikasleak kalera atera zuten euskararen aldeko aldarria. Kalegoen plazan euskararen aldeko hainbat esaldi irakurri zituzten, eta gero, Maalako parkean disko-festa emanaldia izan zuten. Elgoibar Ikastola-koek, aldiz, Argitxo Iratxoaren bueltan ospatu zuten eguna. Antzerkia eta musika saioa egin zituzten besteak beste ikastetxeko erdiko aretoan, eta arratsaldean txokolate jana egin zuten. Jolasak, kantuak eta euskararen aldeko mezuak ere ez ziren falta izan. Mendaron, bestalde, eskolako patioan egin zuten euskararen aldeko jaialdia. Mailaka antolatuta egin zituzten umeek aurrez prestatutako dantzak, guraso eta herritarren aurrean, eta segidan, Arno Guraso Elkarte-koek erretako gaztainak jan zituzten.



# BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

**HERRIKO ANTZOKIAN**  
Abenduak 26, osteguna  
22:00etan

**Maialen Lujanbio**  
**Amets Arzallus**  
**Uxue Alberdi**  
**Oihana Iguaran**  
**Aitor Bizkarra**

Gai-jartzailea: Ainhoa Mendibil



**SARREREN AURRE-SALMENTA:** abenduaren 9tik 23ra  
11€ (10 € Elgoibarko Izarrako bazkideek)  
Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00-18:30)  
943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)

Antolatzailea:



Laguntzaileak:





# GIPUZU-

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



# N A K



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN